

**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

Euskararen Nazioarteko eguna dugu gaur. Euskaldunak munduan mundutar gara. Euskarak muga guztiak gaindi ditzala nahi dugu.

Ospakizun honetan, euskaraz idatzitako lehen liburuaren hitzaurreko zati txiki bat irakurri nahi dut.

Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago, jauna, nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera, zeren ladin publiko mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain eskribatzeko hon dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik, ezerein reputazione bage, eta berze nazione orok uste dute ezin deus ere eskriba daiteiela lengoaje hartan, nola berze orok baitute eskribatzen berian.

Liburua desio eder batekin amaitzen du: *debile principium melior fortuna sequatur*

Hasiera umil honek etorkizun hoberik izango ahal du.

Gaur bi mila eta hamargarren urtean, Etxepareren desioa betetzen ari da euskal gizartea. Euskara mundu zabalean ari da. Unibertsitatera heldu da. Hedabideetan dabil. Mundu osora zabaltzen da. Antzinako ezintasun asko eta asko apurtu dira.

Euskara guztien aukera da. Inork ez du jabetzarik. Hiritarren askatasun eta borondatean nahi dugu oinarritu etorkizuna.

Gaur jaurlaritza osoa hemen bildu gara hori adierazteko, eta baita ere, beharrezko diren laguntzak bermatu eta ziurtatzeko.

Administrazioari dagokigu hiztunei bideak erraztea, munduan zabal dadin bitartekoak jartzea.

Orain dugun egoera zaila bada ere, Jaurlaritzak ez ditu euskaltzaleak bazterrean utziko: laguntza eta babesa izango dute.

Aniztasuna da gure elkarbizitzaren oinarri. Hizkuntzen arteko harremanak ezin dira arazo bihurtu, haatik, aberasgarri behar dute izan.

Duela bostehun urte argitaratu zen euskarazko lehen liburua, gaur eremu digitala irabaztea nahi genuke, beste hizkuntzen parean.

Baina nik, hizkuntza larreakoa,

nahi haunat ere noranahikoa

jakite hegoak igoa,

soina zahar, berri gogoa,

azal horizta, muin betirakoa.

(Lizardi)

Beste bostehun urteko bizitza aberatsa opa diogu.

2010eko abenduaren 3a